

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

1084

EBAZPENA, 2023ko otsailaren 17koa, Lehendakartzako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez dei egiten baitzaie Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoei eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2023. urteko ediziorako proiektuak aurkezteko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.39 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen osoa du gazte-politikaren alorrean.

Bestalde, lehendakariaren irailaren 23ko 18/2022 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Dekretua bigarrenez aldatzen duenak, Lehendakartzari esleitzen dizkio gazteriaren arloko egitekoak eta jardun-arloak.

Lehendakariaren otsailaren 8ko 4/2023 Dekretuaren bidez, lehendakariak Lehendakartzako idazkari nagusiari eginkizunak eskuordetzan ematen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoei eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei deialdia egiteko, 2023an proiektuak aurkez ditzaten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programarako.

Arau-esparru horretan oinarrituta eta jardun-arlo horretako erakundeen eskumenak errespetatuta, Eusko Jaurlaritzak auzolandegien programa bat kudeatu du Gazteria Zuzendaritzaren bidez.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoei eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei egiten zaien deialdiaren arauak ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2023. urteko ediziorako proiektuak aurkez ditzaten.

2. artikulua.– Definizioa.

Hona auzolandegizat zer hartzen den: hainbat jatorritako gazteek beren borondatez eta esku-zabaltasunez konpromisoa hartzen dute gizarte-proiekzioko egitasmo bat eta jarduera osagarriak garatzeko, denbora-tarte jakin batean, eta egitasmo horren bitartez, besteak beste, elkarbizitza, tolerantzia, elkartasuna, parte-hartzea eta kulturartekotasuna sustatzen dira.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– «Auzolandegiak» programarekin elkarlanean jarduteko interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek beren gizarte-proiekzioko lan-egitasmoa aurkeztu ahal izango dute. Legez eraturako erakundeak izango dira, eta dagokien Erregistroan eman beharko dute izena.

2.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna Lortzeko eta Emakumeen Kontrako Indarkeria Matxistatik Gabe Bizitzeko Legearen arabera, sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik zigor administratibo

edo penala jaso duten erakunde publikoek zein irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek, eta debeku horrekin zehatutakoek, ezin izango dute ebazpen honetan araututako deialdian parte hartu, kasuan kasuko zigorrak ezarritako epean.

4. artikulua.– Proiektuen tipologia.

1.– Erakunde publikoek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek edozein tipologia edo modalitatetako proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte, boluntarioek auzolandegietan egin beharreko lan-arloari dagokionez (ingurumena, arkeologia, berreraikitzea, gizarte-lana, antzerkia, artea, ondarea berreskuratzea...).

2.– Erakunde interesdunek kontuan hartu beharko dute auzolandegien xedea dela hainbat jatorri eta kulturatako gazteen arteko elkarbizitza eta kultura-trukea bultzatzea, auzolandegia hartuko duen komunitatearen onerako izango den boluntario-lanaren bidez, hau da, ondasun edo zerbitzu publiko izango den gizarte-proiektuaren lan baten bidez.

5. artikulua.– Proiektuen baldintzak.

Hauek dira proiektuetan kontuan hartuko diren baldintzak:

a) Auzolandegiak, ahal dela, uztailean eta abuztuan egingo dira. Alabaina, Auzolandegiak proiektuaren iraupena aurreko eta ondoko hiletara ere luzatzea aztertuko du Gazteria Zuzendaritzak, erakunde interesdunek aurkeztzen dituzten proiektuen eskaintza ikusita. Aldi horren barruan, nahi duten denbora-tarte zehatza aukeratu ahal izango dute erakunde interesdunek auzolandegiak egiteko.

b) Ahal dela, auzolandegiak hamabost eguneko bi txandatan egingo dira; hala ere, hamabost eguneko txanda bakarra egin ahal izango da.

c) Proiektuak planteatzen direnean, bermatu beharko da boluntarioek eskaintzen diren txanda guztietan izango dutela lana.

d) Auzolandegietako txanda bakoitza 20 bat gazterentzat antolatuko da.

e) Proiektuak erakundearen onarpena duela egiaztatzeko, erakunde publiko edo pribatu eskatzailearen organo eskudunak agiri bat aurkeztu beharko du, non, onartuz geroz, proiektua burutzeko eta ebazpen hau betetzeko konpromisoa agertuko duen.

6. artikulua.– Hautaketa Batzordea.

1.– Aurkeztutako eskariak aztertu, balioetsi eta hautatzeko, Hautaketa Batzordea osatuko da. Hauek izango dira hautaketa-batzordeko kideak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna Lortzeko eta Emakumeen Kontrako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatzen duenari jarraikiz:

– Lehendakaria: Josu Gerediaga Egurrola, Gazteria Zuzendaritzako arduraduna. Ordezkoa: Maria Jesus Emazabel Lekuona, Gazteria Zuzendaritzako teknikaria.

– Kidea: Lourdes Ramírez de Ocáriz, Gazteria Zuzendaritzako teknikaria. Ordezkoa: Agurtzane Iriondo Goti, Gazteria Zuzendaritzako teknikaria.

– Kidea: Beñat Martínez Castillo, Gazteria Zuzendaritzako teknikaria; idazkari moduan jardungo du. Ordezkoa: Maite Artabe Urkidi, Gazteria Zuzendaritzako teknikaria.

2.– Eskarien azterketa eta ebazpen-proposamena: hurrengo artikuluan aipatzen diren balorazio-irizpideak kontuan hartuta, Hautaketa Batzordeak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio

Gazteriako zuzendariari. Gainera, beharrezko iritzitako argibide eta dokumentazio oro eskatu ahal izango die proiektuak aurkeztutako erakundeei, betiere, alde zuzenetik jakinarazita eta 12. artikuluan finkatutako epea emanda. Bestalde, Hautaketa Batzordea proiektua aurkeztutako erakundeei ados jarri ahal da aurkeztu dituzten datak aldatzeko, «Auzolandegiak» programaren eskaintza egokitze aldera.

7. artikulua.– Proiektuak balioesteko irizpideak.

Deialdi hau lehiaketa bidez ebatziko da, eta, beraz, proiektuak hautatzeko, aurkeztutako guztien arteko alderaketa egingo da, beharrezko zehaztutako balioespen-irizpideak aintzat hartuta. 40 puntu edo gehiago lortzen dituzten proiektuak hautatuko dira. Hona hemen Hautaketa Batzordeak kontuan hartuko dituen balioespen-irizpideak:

a) Proiektuen interes soziala. Proiektuaren eragin soziala baloratuko da, hain zuzen ere, zertan lagunduko dion hartzen duen komunitateari eta zenbatean eragingo dion bere garapenari. Era berean, baloratu egingo da onuradunen kopurua eta baita ere zer-nolako emaitzak espero diren kokatuta egongo den eremuan: gehienez ere, 40 puntu.

b) Proposatutako lanaren iraunkortasuna eta baita sostengarria izatea parte-hartzaileei dagokionez eta hartuko duen lekuko komunitateari dagokionez ere: gehienez ere, 40 puntu.

c) Ostatuaren instalazioen baldintzak. Egokiro instalatutako sukaldea eta jakietarako biltegia izatea baloratuko da: gehienez ere, 15 puntu.

d) Proposamenaren originaltasuna: aurkeztutako proiektuaren izaera, ikuspuntu eta/edo metodologia berritzailea baloratuko da: gehienez ere, 5 puntu.

8. artikulua.– Aldeen konpromisoak.

1.– Hautatutako proiektuak aurkeztu dituzten erakundeek honako prestazio hauek emateko konpromisoa hartuko dute eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioak ez die, trukean, inolako diru-ordainketarik egingo:

a) Auzolandegiko lan eta jarduerak egiteko beharrezkoak diren materialak, bai eta bertako lurra eta instalazioak parte-hartzaileen beharrezkoak diren bitartean egokitzeko beharrezkoak direnak ere.

b) Auzolandegiko lanen zuzendaritza teknikoetarako eta auzolandegiko lanak abian jartzeko beharrezkoak diren langileak, antolatzaileen gidaritzapean. Langile horiek auzolandegia hasi aurretik zuzendaritza- eta animazio-taldearekin biltzeko modua izan behar dute, udalari edo komunitatean dauden baliabideak jakinarazteko eta horietarako sarbidea eman eta alde zuzenetik programa eta jarduera osagarriak antolatzeko. Erakunde eskatzaileak bermatu behar du 1/1996 Lege Organikoaren (urtarrilaren 15ekoa, adin txikikoen babes juridikoari buruzkoa) 13. artikuluko 5. zenbakian ezarritakoa beteko dela (haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen bidez ezarri bezala). Hots, adin txikikoekin harremanetan egoten diren langile guztiek (kontratudunek eta boluntarioek) izan behar dute sexu-delitugileen erregistro zentralak jaulkitako ziurtagiri negatiboa.

c) Parte-hartzaileei ostatu emateko lursail edo instalazioak, behar bezalako higiena, osasungarritasuna eta segurtasuna bermatuko dituztenak, auzolandegiko eremuan garatuko diren jardueretara egokituta. Instalazioen deskribapenean zehaztu behar da ea dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat egokituta dauden ala ez, eta, oztopo arkitektonikorik egonez gero, horien zerrenda jaso. Halaber, ahal dela, erakundeak auzolandegiko taldearentzat bakarrik erreserbatuko du ostatu-lekua, auzolandegiak dirauen bitartean. Osterantzean, horren berri eman behar zaio lehenbailehen Gazteria Zuzendaritzari.

Instalazioek, gutxienez, honako guneak izango dituzte:

- Lo egiteko gune bat, gutxienez, ohatzeekin edo ohatzerik gabe.
- Auzolandegiko zuzendaritza- eta animazio-taldearentzat gune bat.
- Jolas-jarduerak egiteko materiala gordetzeko gune bat.
- Dutzak eta komunak, gazteen ostatu-lekuan edo handik gertu. Zehaztu beharko da bainugelak eraikin berean edo beste batean dauden, eta dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat irisgarriak diren, eta oztopo arkitektonikoak zerrendatu.

– Jarduerak egiteko gune bat.

– Sukaldea eta jangela.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egin beharreko jarduera soziokultural edo aisialdi-koen jardunaldi bat, gutxienez, ziurtatzen duten elementu material eta pertsonalak.

e) Gazte boluntarioak garraiatzeko modua, lantokia ostatua duten lekutik urruti baldin badago.

f) Beharrezkoak diren segurtasun-neurri guztiak, parte-hartzaileek lanean osasun fisikoan eta bizian inolako arriskurik izan ez dezaten.

g) Ostatu-lekuan garbiketa egiteko materiala.

h) Auzolandegia egingo den tokiko eta inguruko kultura-aukerak erakustea, Auzolandegiak programak bilatzen duen kulturarteko ikaskuntzaren helburua egoki bete dadin.

i) Udaleko kirol-instalazioetara sartzeko trabarik ez jartzea auzolandegiko parte-hartzaileei.

j) Behin auzolandegia bukatu eta gero, egindako lanaren gaineko dokumentazio grafikoa ere bilduko duen memoria bat aurkeztea.

k) Auzolandegiko parte-hartzaileei hasierako harrera eta bukaerako agurra egitea.

l) Gazteria Zuzendaritzari jakinaraztea, deialdia egin aurretik edo, hala badagokio, Auzolandegia egin aurretik, lankidetzaren honen esparruan garatzen den auzolandegiarekin lotutako edozein hedapen- edo komunikazio-ekintza egiteko aurreikuspena.

m) Auzolandegia amaitzen den egunean, erakundeak izendatutako pertsona batek egiaztatuko du ostatu eta sukalderako instalazioak jardueraren hasieran zeuden baldintza berberetan daudela, eta Gazteria Zuzendaritzak emandako adostasun-parte sinatu beharko du.

n) Udalak datu pertsonalak babesteari eta tratatzeari buruz indarrean dagoen araudia betetzen dela zainduko du.

ñ) Aurrekoa alde batera utzi gabe, egokitzen jotzen dituen beste elementu edo prestazio batzuk ematea, Gazteria Zuzendaritzako arduradun antolatzaileen alde aurreko baimenarekin.

2.– Gazteria Zuzendaritzak honako prestazio hauek emango ditu:

a) Jardueraren antolaketa orokorra.

b) Auzolandegia sustatzea, eta parte-hartzaileak izapidetzea eta inskribatzea.

c) Jardueraren arduradunak.

d) Elikadura edo elikadura horren kostuak.

e) Parte-hartzaileen, instalazioen eta materialen aseguruak (istripu-aseguruak eta erantzukizun zibileko aseguruak).

f) Instalazioak egokitzeko materialak (ohatzeak, sukalderako materialak, etab.).

9. artikulua.– Proiektuak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izango da Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera.

10. artikulua.– Proiektuak aurkezteko lekua eta modua.

1.– Bitarteko elektronikokoak erabili beharko dituzte erakunde interesdunek prozedura horren izapideak eskatzeko, zuzentzeko, justifikatzeko eta egiteko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikokoan identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide honetan eskura daitezke: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Era berean, elektronikoki ere izapidetu ahal izango da, ordezkari baten bidez. Horretarako ordezkariak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ahalordeen erregistro elektronikokoan eman beharko du izena, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkariak>

2.– Ebazpen honen eranskinean jasotako eskabide-eredua, eta eskabideak izapidetzeko xehetasunak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikokoan eskuratu daitezke, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050706>

3.– Eskararen ondorengo izapideak egiteko eta espedientea ikusteko ondorengo webgunea baliatuko da: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

4.– Erakunde eskatzaileek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz zein gaztelaniaz aurkez dezakete, nahi duten eran. Halaber, prozedura osoan zehar, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan xedatutako moduan.

11. artikulua.– Aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Erakunde interesdunek honako agiriak bidali behar dituzte:

a) Auzolandegiaren proiektu teknikoa, honakoak xehe-xehe jasoko dituenak: egin beharreko lanak, lekua eta egunak, eta proiektuaren helburu zehatza ulertzen lagundu dezakeen beste edozein alderdi. Gainera, ostatu-lekuko instalazioen deskribapen zehatza jaso beharko da, eta, hala badagokio, baita sukaldearena eta haren ekipamenduarena ere, eta janari-biltegiarena ere bai. Bai proiektu teknikoaren deskribapena bai instalazioena material grafikoaz lagunduta aurkeztu beharko da.

b) Proiektuak duen interes sozialaren, kulturalaren edo historikoaren justifikazioa.

c) Proiektuak erakundearen onarpena duela egiaztatzeko, erakunde publiko edo pribatuaren organo eskudunak agiri bat aurkeztu beharko du, non proiektua burutzeko eta ebazpen hau bete zeko konpromisoa agertuko duen.

d) Auzolandegian egin beharreko jardueren eta proposamenen zerrenda, inguruneak kultura aldetik dituen baliabideak erakusteko.

e) Erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzen duena erakunde eskatzaileak ez duela zigor administratibo edo penalik sexu-bereizkeria dela-eta, edo organo eskudunaren ziurtagiria, eakunde publikoen kasuan.

2.– Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek, gainera, honako informazio hau bidaliko dute:

a) Estatutuen kopia (baldin eta, pertsona juridikoa izateagatik, nahitaezkoa bada, indarrean dagoen legeriaren arabera) edo, erakunde-motaren arabera, eratze-eskrituraren kopia.

Eskatzaileak dokumentazio hori lehenago aurkeztu badu Administrazio horretan eta hura oraindik indarrean baldin badago, ez da beharrezkoa izango berriro aurkeztea. Kasu honetan, Administrazioak ofizioz egiaztatuko du. Horretarako, nahikoa izango da dokumentazio hori zein sail edo zuzendaritzatan aurkeztu zuen adieraztea.

b) Eskabidea aurkezten duen pertsonaren ordezkaritza-boterea.

c) Erakundearen egoitza EAEn dagoela egiaztatzen duen agiria.

d) Dagokion erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria (elkarteena, fundazioena edo dagokiona).

12. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

Eskaera izapidetzea onartzeko eskatzen diren agirietakoren bat faltako balitz, agiriotan formazko akatsen bat balego edo baloraziorako aurkeztutako dokumentazioan akatsik aurkituko balitz, hamar egun baliaduneko epea emango zaio interesdunari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikulua arabera, Nire Karpeta-ren bidez (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>), akatsa zuzen dezan edo beharrezkoak diren agiriak aurkez ditzan. Jakinarazpen horretan adieraziko zaio, hori egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, ebazpenaren ostean.

13. artikulua.– Ebazpena.

1.– Hautaketa Batzordearen proposamena ikusita, «Auzolandegiak» programarako proiektuen onarpenari buruzko Ebazpena emango du Gazteriako zuzendariak, hilabeteko epean, proiektuak aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita.

2.– Ematen den ebazpena sei hilabeteko epean jakinaraziko zaie, erakunde interesdunei, Nire Karpeta-ren bidez, ebazpen hau indarrean jartzen denetik aurrera. Ebazpen horren aurka aurrerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da hilabete bateko epean organo berdinari zuzenduta edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– Ebazteko epea igarota ebazpenik jakinarazten ez bada, dagokion eskabidea ezetsi egin dela ulertuko dute erakunde interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

4.– Orokorrean ezaguna izan dadin, eta erakunde interesdunei espresuki eta banaka jakinarazteko beharra alde batera utzita, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da «Auzolandegiak» programarako onartutako proiektuen zerrenda.

5.– Proiektuak gauzatzeko hautatu diren erakundeek deialdian ezarritako konpromiso guztiak onartuko dituzte. Erakunde horiek Gazteria Zuzendaritzara bidali beharko dute aldean arteko lankidetzaren onarpena, auzolana egiteko.

14. artikulua.– Jarduera bertan behera uztea.

Gazteria Zuzendaritzak proiektuaren bideragarritasuna arriskuan jar dezaketen arrazoi teknikoak daudela deritzonean, bertan behera utzi ahal izango du Euskal Autonomia Erkidegoan egin beharreko auzolandegi bat. Gertaera horrek ez du ekarriko inolako kalte-ordainik proiektua aurkeztu duen erakundearentzat.

15. artikulua.– Ekintzak jakinaraztea.

Onartutako proiektuak aurkeztu dituzten erakunde publikoek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek «Auzolandegia» programarekin eta, bereziki, haiekin elkarlanean garatuko den auzolandegiarekin loturiko edozein zabalkunde- edo komunikazio-ekintza egin behar dutenean –zabaltzeko edo komunikatzeko bidea edozein dela ere–, aldez aurretik horren jakitun ipini behar dute Gazteria Zuzendaritza.

16. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

Onartutako proiektuak aurkeztu dituzten erakunde publikoek edo irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek datu pertsonalak babesteko eta tratatzeko araudian xedatutakoa betetzen dela zainduko dute.

Datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Auzolandegiak eta Euskadiko Gazteak Lankidetzan programak.

Arduraduna: Gazteria Zuzendaritza, Lehendakaritza.

Helburua: Auzolandegiak eta Euskadiko Gazteak Lankidetzan programetako partaideen datuen kudeaketa. Baimenak eta laguntzak izapidetzea.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

Hartzaileak:

- Elkarateak eta irabazi asmorik gabeko organizazioak.
- Europako Batasuneko organoak.
- Estatuko Administrazioako beste organo batzuk.
- Toki-administrazioako beste organo batzuk.
- Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/103700-capa1-eu.shtml>

Araudia:

– Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf).

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ezinbesteko arrazoiengatik (parte-hartzaileen osasun-arrazoiak edo segurtasun-arrazoiak direla eta) Gazteria Zuzendaritzak Auzolandegiak programa etetea erabakitzen badu, Gazteriako zuzendariak ebazpen honetan atzera egiteko ebazpena eman ahal izango du.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Lehendakartzako idazkari nagusiari zuzenduta, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 17a.

(Lehendakartzako idazkari nagusiari eginkizunak eskuordetzan ematen dizkion lehendakariaren otsailaren 8ko 4/2023 Dekretuaren arabera).

Lehendakartzako idazkari nagusia,
JUAN MANUEL CASTILLA ALBISU.

ERANSKINA

ESKABIDEAN GEHITU BEHARREKO DATUAK. ESKABIDEA DAGOKION FORMULARIO ELEKTRONIKOAREN BIDEZ EGIN BEHAR DA

1.– Identifikatu.

Identifikazio-datuak:

Eskatzailea.

Honen izenean ari naiz: pertsona/erakunde interesdun gisa espedientean / ordezkari gisa.

Komunikazio-datuak:

Identifikazio-dokumentua, Zenbakia*, Erakundearen Izena*

Espedienteko pertsona interesdunak: identifikazio dokumentua, zenbakia, izena, lehen abizena, bigarren abizena, sexua.

Jakinarazpenak eta komunikazioak helbide honetara bidaliko dira: espedientea tramitatzen den bitartean Administrazioak bidalitako jakinarazpenak honi zuzenduko zaizkio:

Harremanetarako hizkuntza, Jakinarazpen eta komunikazioaren bidea: elektronikoa. jakinarazpen eta komunikazioak Nire Karpeta-ra bidaliko dira.

Abisuak jasotzeko datuak: posta elektronikoa*, telefono mugikorra

(Bide elektronikoa: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43.2 artikulua arabera, 10 egun naturaleko epean ez bada sartzen jakinarazpen elektronikoa batera, ulertuko da uko egin diola: izapidea egintzat joko da, eta administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin).

Datu pertsonalen tratamendua:

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio Auzolandegiak eta Euskadiko Gazteak Lankidetzan programak.

Arduraduna: Gazteria Zuzendaritza, Lehendakaritza.

Helburua: Auzolandegiak eta Euskadiko Gazteak Lankidetzan programetako partaideen datuen kudeaketa. Baimenak eta laguntzak izapidetzea.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

Hartzaileak:

- Elkarateak eta irabazi asmorik gabeko organizazioak.
- Europako Batasuneko organoak.
- Estatuko Administrazioiko beste organo batzuk.
- Toki-administrazioiko beste organo batzuk.
- Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/103700-capa1-eu.shtml>

Araudia:

– Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf).

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

2.– Datuak bete.

Proiektuari buruzko datuak:

Informaziorako kontaktua den pertsonaren identifikazio-datuak: Izena*, Lehen abizena*, Bigarren abizena, Karguduna (betetzen duen lanpostua)*, Telefono finkoa, Telefono mugikorra, Faxa, Helbide elektronikoa.

Proiektua:

Proiektuaren izena*

Erantzukizunpeko adierazpenak:

Zure erantzukizunpean aitortzen duzu adierazpen hauetan azaltzen diren datuak benetakoak direla. Administrazioak prozedurarekin ez jarraitzea erabaki dezake datuak zehatzak ez badira, funtsezko zerbait nahita esan gabe geratu bada edo datuak faltsuak badira. Horrek ez du eragoztziko izan daitezkeen bestelako erantzukizun penal, zibil edo administratiboek aurrera egitea.

Adierazten dut:

– Ez dago dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatik lege-debekuen eraginpean. Bai/Ez.

– Betetzen ditu indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak*. Bai/Ez.

– Eskabidean jasotako datu guztiak egiazkoak dira eta osorik daude, baita aurkezten duten dokumentazioa ere, eta nire gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua)*. Bai/Ez.

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den funtsezko datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratu dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak. (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

3.– Dokumentuak erantsi.

Prozeduran eskatzen diren dokumentu-motak ikus ditzakezu jarraian. Dokumenturen bat igotzeko, sakatu Erantsi. Mota bereko dokumentu gehiago eransteke, sakatu Gehitu.

Eskatutako dokumentuak/ igotako dokumentuak/ Ekintzak

Proiektua. (Erantsi/Bilatu/Aurkeztua).

Argazkiak. (Erantsi/Bilatu/Aurkeztua).

Erakunde eskatzaile publiko edo pribatuaren organo eskudunak igorritako txostena, zeinak, onartua izanez gero, aurkeztutako proiektua aurrera eramateko eta Ebazpen hau betetzeko bere konpromisoa bermatuko duen. (Erantsi/Bilatu/Aurkeztua)

4.– Sinatu eta bidali.